

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Alkatearen eginkizunak lehen alkateordearen esku uztea aldi baterako

Alkateak, 2021eko irailaren 28ko dekretu bidez, ebazpen hau eman du:

2021eko urriaren 9tik 16ra bitartean, egun biak barne, Aguraingo udalerritik kanpo egongo naizenez,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.1, 44.2, 47.1, 47.2 eta 48. artikuluek ezarritakoa azterturik, honako hau

EBAZTEN DUT

I. Lehen alkateorde Rubén Ruiz de Eguino López de Guereñuren esku uztea alkatearen eginkizunak Aguraingo udalerritik kanpo egongo naizen aldian ordeztu nazan, hau da 2021eko urriaren 9tik 16ra bitartean, bi egun horiek barne.

II. Dekretu hau jakinaraztea Rubén Ruiz de Eguino López de Guereñuri.

III. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea eta haren berri ematea Udalbatzari, haren hurrengo bilkuran.

Agurain, 2021eko irailaren 28a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES